



EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK

herri administrazioan, arlo juridikoan eta kriminologiaren esparruan

Bai Euskarari Ziurtagiria euskara normalizatzeko tresna baliagarri gisa

Amaia VICARIO

Ane GALARDI

Amaia BALENTZIAGA

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Bai Euskarari Ziurtagiria: 1. Kontzeptua.-2. Aurrekariak.-3. Helburuak.-4. Ziurtagiriaren maila desberdinak.-5. Abantailak.-6. Kostua.-**III. Ziurtagiria nola lortu:** 1. Jarraitu beharreko prozesua.-2. Bete beharreko baldintzak edo irizpideak.-3. Entitate ziurtagiridunen esperientzia.-**IV. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte:** 1. Egitura eta funtzionamendua.-2. Helburuak eta esku artean dituen proiektu desberdinak.-**V. Ziurtagiridunen datu-basea eta mapa.-VI. Ondorioak.-VII. Bibliografia.**

I. Sarrera

Aurrerago azalduko dugun bezala, 1998. urtean Kontseiluak aurrera eramandako *Bai Euskarari* kanpaina izugarriaren eraginez, Bai Euskarari Akordioak egundoko oihartzuna izan zuen eta gizarte-babes handia jaso zuen. Hala ere, jada bi hamarkada pasa dira eta, urte hauetan zehar, oihartzuna galtzen joan da, belaunaldi berriek ez ezagutzera iritsi arte. Belaunaldi horietako baten parte gara gu ere, hau da, gaur egun Zuzenbideko Graduko ikasleak garenok eta, beraz, izango direnak ere. Gure kasuan, Bai Euskarari Ziurtagiriaren inguruan betidanik entzun izan dugu zerbait, zenbaitetan etxeo bazter askotan Bai Euskarari kanpainaren *merchandising*-a topatu izan dugu, baina sekula ez dugu jakin benetan zer den eta zein ekarpen egiten dion euskararen normalizazio prozesuari.

Ezjakintasun horrek bultzatuta erabaki genuen gai hau aukeratzea eta, gaia sakonki aztertu eta gero, uste dugu zinez garrantzitsua dela Zuzenbideko Graduko ikasleok Bai Euskarari Ziurtagiriaren nondik norakoak ezagutzea. Izan ere, nahiz eta Ziurtagiriaren inguruan kalean gutxi hitz egiten den, lan munduan gero eta eremu zabalagoa hartzen ari den tresna da eta, gaur egungo ikasleak etorkizuneko profesionalak izango garela kontuan hartuta, oso garrantzitsua iruditzen zaigu Zuzenbideko Graduko ikasleok egiaztagiri honen aurrekariak, helburuak, ezaugarriak –Ziurtagiriaren maila desberdinak, kostua, Ziurtagiria lortzeko jarraitu beharreko prozesua eta bete beharreko baldintzak- zein abantailak ezagutzea; Ziurtagiria, etorkizunean topatuko dugun errealitate baten parte baita. Era berean, egiaztagiri honen berri izatea beharrezkoa dela iritzi dugu, euskara benetan maite badugu, guk ere etorkizunean euskararen aldeko apustua egin eta eraikitzen ari garen Euskal Herri euskaldunari ekarpen berriak egin diezazkiokegulako.

Horretarako baina, artikulua honetan Ziurtagiriari buruzko datuak (aurreko paragrafoan aipatutakoak) emateaz gain, Ziurtagiri honen beharraz eta euskarari zein euskaldunoi egiten digun ekarpeni buruz arituko gara; iraganetik gaur egunera arte egin den eraldaketa positiboa azalduko dugu, orain esan bezala, euskaraz hertsiki bizi nahi baldin badugu, etorkizuneko profesionalok ere egin behar dugulako horren aldeko apustua.



II. Bai Euskarari Ziurtagiria

1. Kontzeptua

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek azaltzen duen bezala, Bai Euskarari Ziurtagiriak egiaztatzen duena da, enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla. Hortaz, tresna baliagarria da entitate baten hizkuntza-egoera zein den balioesteko.

Ziurtagiriak baina, dirudiena baino gehiago ekartzen die entitateei: azken batean, Bai Euskarari Ziurtagiriak, bezeroak euskaraz hartzea eta euskarazko kalitatezko zerbitzuak eskaintzea lehiakortasunarekin lotzen dituzten enpresak aitortzen ditu. Izan ere, entitate horiek erakusten dute euskarak lanerako balio duela, gaztelania edo frantsesa bezain aberatsa eta profesionala dela eta, beraz, euskara apustu estrategiko zein berritzailea dela. Era berean, Ziurtagiriak beste bertute batzuk helarazten ditu, hala nola, gertutasuna, sinesgarritasuna, konfiantza eta konpromisoa.

Horrenbestez, Bai Euskarari Ziurtagiria tresna eta aitortza bat baino gehiago da. Alde batetik, merkatu ekonomikoan, sektoreko enpresen artean bereizgarri bat da. Bestetik, euskal gizartean sinbolo izatera iritsi da. Izan ere, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendari den Roberto Gutierrezen hitzetan, egiaztari hau bi gakoren lotura da: euskara normalizatzeko entitateen borondatearena eta esfortzu horrekiko gizarteak egiten dien aitortzarena.

2. Aurrekariak

Ziurtagiriaren sorreraren kausa ulertzeko, ezinbestekoa da Roberto Gutierrezek “Bai Euskarari Ziurtagiria. El Certificado Bai Euskarari” lanean ematen duen azalpena kontuan hartzea. Ziurtagiriaren arduradun nagusiak dioten moduan, Kontseiluak, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluari egiten dio erreferentzia eta, 1997az geroztik, euskararen normalizazioaren eremuan lanean diharduten enpresa, federazio eta entitate ez instituzionalen bilgunea da. Urte hartan, euskararen normalizazio prozesuaren egoeraz kezkatutik, euskalgintzako hainbat pertsonak [bilera eta mintegi desberdinak](#) egin zituzten: batetik, ordura arte erakunde publikoek garatutako politika linguistiko desberdinei buruzko kritikak partekatu zituzten eta, bestetik, autokritika moduan, euskararen aldeko mugimendu sozialek hizkuntzaren normalizaziorako plan eraginkorrak sortzea ez asmatu izana onartu zuten. Geroago, *Euskararen Unibertsoa* izeneko jardunaldietan -400 eragile bildu ziren euskararen normalizazioa aztertu eta haren aldeko lana egiteko-, ordura arte egindako diagnostikoa berretsi zuten: euskalgintzaren indarrak kohesionatzea eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatibo bat eragitea. Hortaz, jardunaldi horietatik jaso zuen behin-behineko talde eragileak, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortzeko agindua, eta, beharrezko urratsak egin ondoren, 1997ko abenduaren 6an jaio zen Kontseilua Durangon.

Hasiera batean, Xabier Mendigurenen esku geratu zen Idazkaritza Nagusia eta, bere lantaldea osatuta, lanari ekin zion. Lehenengo pausu garrantzitsua 1998ko abenduaren 21ean gertatu zen, Euskal Herriko hamar alderdi politikoetako ordezkariak Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa izenburuko agiria aurkeztu eta sinatu zutenean. Hala ere, bi egun geroago batu zuten Kontseiluak hasierako lan gogorraren lehenengo uzta handia: hogeita bi gizarte eragilek (CCOO sindikatua, Laboral Kutxa eta Mondragon Unibertsitatea, besteak beste) Bai Euskarari Akordioaren lehen sinatzea egin zuten Iruñean UNESCOren lekukotasunarekin.

III. Ikasleen ekarpenak



Akordio horren helburua zehazki, eragile sozialek euskara bizirik mantentzeko hartutako konpromiso irmoa gauzatzea zen. Horretarako, Bai Euskarari Akordioak hiru konpromiso jaso zituen: euskararen normalizazioa bideratuko zuen prozesu baten parte hartzea, normalizazio linguistikorako Plan Estrategiko bat egin eta aplikatzea eta Euskal Herriko gainerako eragile sozialei dinamika honetan parte hartzera gonbidatzea.

Azpimarratu behar da, arrakasta hori lortzeko, urte horretan zehar Kontseiluak bi lan garrantzitsu egin zituela paraleloki. Alde batetik, beren eremuan erreferentziazkoak ziren hiru gizarte eragilerekin batu zen –Athletic Club, MCC eta ELA sindikatua- eta hirurek erakutsi zuten egitasmoan parte hartzeko erabateko konpromisoa. Bestetik, *Bai Euskarari* kanpaina eraman zuen aurrea, euskararen normalizazio prozesuari ahalik eta gizarte babes handiena ematea bilatzen zuena; eta baita lotu ere: kanpainari amaiera emateko, 1998ko abenduaren 26an, ordura arte aurrekaririk ez zeukan mobilizazioa antolatu zuen Kontseiluak. Izan ere, Euskal Herriko bost futbol zelaitan aldi berean bost ekitaldi ospatu ziren eta guztira 125.000 pertsonak hartu zuten parte.


1999ko otsailean berriz, Kontseiluak beste kanpaina bat jarri zuen martxan: *Lanordu bat Akordioaren alde*. Kanpainaren helburua, Bai Euskarari Akordioa eta Plan Estrategikoa gauzatu ahal izateko dirua biltzea zen. Azkenean, milaka enpresa eta langileri esker, 181 milioi pezeta lortu ziren, langile zein enpresei lanordu bati zegokion dirua eskatu baitzitzaien.

Era berean, 1999ko otsaila eta maiatza artean, Hego Euskal Herriko 1500 eragileri egin zitzaizkien akordioan parte hartzeko deia –aurrerrago, gonbidapen berbera egingo zitzaizkien Ipar Euskal Herriko 600 gizarte eragileri- eta horiek guztietatik 899k (687 Hegoaldekoak eta 212 Iparraldekoak) eman zuten baietza. Hori dela eta, urte bereko maiatzaren 19an, Bai Euskarari Akordioaren bigarren sinatzea egin zen Hegoaldean; Iparraldean aldiz, 2000ko otsailaren 25ean.

Gauzak horrela, 1999ko ekainean hasi eta abendura arte iraungo zuen Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesuan murgildu ziren Hegoaldeko sinatzaileak. Planaren diseinuaren azken helburua, erakunde bakoitzak normalizazio linguistikorako hartu beharreko konpromisoak definitzea zen eta, horretarako, sektoreen arabera 23 lantaldeetan antolatu ziren. Nahiz eta proposatutako konpromisoak sektorearen arabera desberdinak izan, horietako asko antzerakoak ziren, adibidez:

- Entitateko kideen artean kontzientziazio eta motibazio kanpainak sustatzea.
- Entitatearen errotulazioan eta paisaia linguistikoan euskara erabiltzea.
- Publizitatea euskaraz ere egitea.
- Kontratazio berrietan euskararen ezagutza balioestea edota ikastea nahi duten langileei laguntzak ematea.
- Entitatearen barne eta kanpo komunikazioetan euskararen erabilera handiagoa izatea.
- Erakunde publikoekin euskaraz komunikatzea soilik.
- Entitatearen barne funtzionamenduan euskara ezartzea.

Honekin batera, prozesuak huts egin ez zezan, lantalde bakoitzeko konpromisoen artean “gutxieneko” izaera zutenak identifikatu zituzten.





Plan Estrategikoaren diseinua bukatu eta gero, Bai Euskarari Akordioko sinatzaile bakoitzak zein neurri normalizatzaile onartuko zituen hausnartzeko epea hasi zen (bakoitzaren egoera linguistikoaren arabera). Horrela, 2000. urteko otsaila eta ekaina bitartean, entitate bakoitzak nahikoa denbora izan zuen kostu ekonomikoak kalkulatu zein antolaketa arazoak konpontzeko. Azkenean, Hegoaldeko 435 eragilek onartu zituzten kualitatiboki garrantzitsuak ziren konpromisoak (“gutxieneko” izaera zutenak) eta, ondorioz, 2000ko ekainaren 13an, Bai Euskarari Ziurtagiria eman zitzaizen Donostiako Miramon Teknologia Parkean.

Iparraldean berriz, 2000ko otsailean atxikitako 212 eragileak, urte bereko maiatzean hasi ziren Plan Estrategikoaren diseinuarekin. Horretarako, 10 lantaldetan banatu ziren eta abenduan eman zioten amaiera hausnarketa prozesuari. Azkenik, konpromisoen onartzea 2001ean egin zen eta 85 eragilek onartu zituzten kualitatiboki garrantzitsuak ziren konpromisoak.

3. Helburuak

Bai Euskarari Ziurtagiriaren helburu nagusia arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean laguntzea eta eragitea da. Horretarako baina, zehatzagoak diren hiru helburu ditu: entitateei gizartearen aurrean egindako normalizazio lana egiaztatzei aukera ematea, zerbitzuak euskaraz jasotzearen demandari erantzutea eta entitateen baitan normalizazio prozesu baten antolaketa ahalbidetzea –entitateek euskararen normalizaziorako neurri zehatzak hartzea, abian jartzea eta betetzera eragitea-.

4. Ziurtagiriaren maila desberdinak

Roberto Gutierrezen “Bai Euskarari Ziurtagiria. El Certificado Bai Euskarari” lanean jasotzen den bezala, 2001eko abenduaren 31ra arte, Bai Euskarari Ziurtagiriak bi maila desberdin izan zituen. Lehena, “Euskararen Bidean” izenekoa, euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ziharduten entitateei zuzendutakoa zen. Bigarrena berriz, Bai Euskarari Ziurtagiria, normalizazio prozesua burutua zuten eragileei zuzendutakoa zen.

Alabaina, eragile sozialek galdatutako hausnarketa epe baten ondoren -2002. urteaz geroztik-, Ziurtagiriak 3 maila ezberdin ditu: aipatu berri den “Euskararen Bidean”, euskara normalizatzeko neurriak hartu eta garatzeaz gain beren zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten entitateei zuzendutako Bai Euskarari “Zerbitzua Euskaraz” eta, aurreko puntuez gain, euskara lan hizkuntzatzat duten entitateei bideratutako Bai Euskarari “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” (maila gorena).



5. Abantailak



Sarreran aipatu bezala, Bai Euskarari Ziuertagiria tresna eta aitortza bat baino gehiago da; sinbolo bat da, bereizgarri bat. Hau gutxi balitz, izen hauek guztiek zera partekatzen dute: ziuertagiridun entitateentzat abantaila direla. Izan ere, euskarari eta euskal gizarteari begira, Ziuertagiriak Euskal Herriko alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragin, euskararekiko konpromisoa adierazi eta taldearen motibazioa sustatzen du (horri esker ere lortzen da arrakasta). Era berean, bezeroak erakarri eta entitateak bereizten ditu, hau da, lehiakideengandik nabarmendu eta merkatu kuota irabaztea eragiten du, eskariari profesionaltasunez erantzutea erraztu eta gertutasuna eta konfiantza transmititzen baititu.

Beraz, esan daiteke abantaila hauek guztiak ez direla soilik ziuertagiridun entitateentzako, euskal gizarte osoarentzako baizik: Ziuertagiriak urte gutxi hauetan erakutsi du ez dela soilik bezero euskaldunen aurrean erakusteko bereizgarri bat, hau da, ez dela bezero euskaldunak erakartzeko tresna bat. Gure ustez, egiaztagiri honen bertute nagusia da poliki-poliki Euskal Herriko esparru sozioekonomikoa euskaldunazten duela, euskara lan hizkuntzatzat hartzea bultzatzen duela eta alor sozioekonomiko euskaldunaren sarea etengabe handitzen duela. Hau da, euskararen normalizazioa gero eta hurbilago ikusarazten digula.

6. Kostua

Ziuertagiria eskuratzeko garaian, [Ziuertagiriak prezio ezberdinak](#) ditu Hego eta Ipar Euskal Herrian, bere garaian Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeak zehaztu zituen ildotik. Hegoaldean, 2017. urtean, oinarritzko kopurua 85 eurokoa da eta erakundeak duen langile bakoitzeko beste 13,50€ gehitzen zaizkio. Prezio bereziak daude irabazi asmorik gabeko entitateentzat eta publikoentzat. Ipar Euskal Herrian berriz, 65€-ko oinarria eta horri erakundeak duen langile bakoitzeko 13,50€ gehitu behar zaio.

Bestetik, Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkarteak eskaintzen duen informazioaren arabera, Elkarteak zenbait Udal, Mankomunitate eta Foru Aldundirekin hainbat hitzarmen ditu eta, hitzarmen horien bitartez, jada Ziuertagiria eskuratu duten edota Ziuertagiria lortu nahi duten entitateei diru-laguntzak ematen dizkiete.

Hala ere, gure ustez “kostu” hauek ezin daitezke “kostu” gisa kontsideratu, inbertsio moduan baizik. Izan ere, alde batetik, Ziuertagiriak ekarpen bat egiten dio euskararen normalizazio prozesuari, eta bestalde, entitatearen interes propioari begira bereizgarri bat da, entitatea lehiakorragoa bihurtuko duena.

III. Ziuertagiria nola lortu

1. Jarraitu beharreko prozesua

Bai Euskarari Ziuertagiria eskuratu nahi duen entitate orok, [prozesu](#) bat jarraitu behar du. Lehenik eta behin, Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkartearekin jarri behar du harremanetan; egun, Elkartea baita Ziuertagiriaren kudeaketa integralaz arduratzen dena.

Ondorengo pausua, entitatearen egoera linguistikoaren analisisa egitea da. Horretarako, lehenengo, arduradunak izendatu, helburuak finkatu eta epeak zein baldintzak zehaztu behar dira.



Gero, analisia egiteko, lau parametro hartu behar dira kontuan: langileen hizkuntza egoera, irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia, kanpo harremanak eta barne harremanak.

Analisi hertsiairen fase guztiak igarota, entitateari dagokion ziurtagiri maila zehazten da aipatutako lau ataletan jasotzen diren elementuen azterketaren emaitzekin, eta, urtebete buruan, ezarritako helburuak bete diren egiaztatzeko, Elkarreak ebaluazioa egiten du. Hortik aurrera, Ziurtagiria urtero berritu behar da eta Elkarrea arduratzen da jarraipen, ebaluazio eta sustapen lanak egiteaz.

2. Bete beharreko baldintzak edo irizpideak

Aurreko puntuan aipatu bezala, ziurtagiri maila zehazteko egin behar den analisia gauzatu ahal izateko, [lau parametro](#) hartzen dira kontuan; ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak direnak. Hala ere, lehenengo bi mailetan (“Zerbitzua eta Lana Euskaraz” eta “Zerbitzua Euskaraz”) aurkitzen diren ziurtagiriak eskuratzeko baldintzak baino ez dira laburbiltzen esandako lau atal horietan. Izan ere, bigarren mailarako zehazten diren baldintzak betetzera iritsi ezean, “Euskararen Bidean” maila aitortzen zaio entitateari.

Aztertzen den lehenengo parametroari, pertsonen hizkuntza gaitasuna deritzo. Atal honetan galdatzen den baldintza da, bezeroekin aritzen diren kideek, beren lanposturako behar duten hizkuntza gaitasuna izan behar dutela (ahoz zein idatziz). Izan ere, kasu guztietan bezeroak euskaraz artatuak izatea bermatu behar da.

Hala ere, irizpide honek entitatearen tamaina hartzen du kontuan:

- 1 edo 2 kide dituen erakunde batean: denek izan behar dute hizkuntza gaitasun nahikoa.
- 3-7 kide bitartekoetan: kide batek hizkuntza gaitasun nahikoa ez izatea onartzen da.
- 8-10 kide bitartekoetan: bi kidek hizkuntza gaitasun nahikoa ez izatea onartzen da.
- 11 eta 50 kide bitartean: kideen %75 izan behar du euskalduna.
- 51 kidetik gorakoetan: kideen %66 izan behar du euskalduna.

Bigarren atalari dagokionez, irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia aztertzen da. Adibidez, produktuen etiketen, produktu eta zerbitzuen katalogoen eta marka jakineko iragarki orokorren kasuan, erakundeak sortutakoak badira, euskaraz egon behar dute. Kanpotik jasotakoak badira berriz, salbuespena egiten da, baina hornitzaileei euskaraz ere bidaltzeko eskaera egin behar zaie. Makinen errotulazioa eta segurtasun errotuluen kasuan, hornitzaileek ez badute euskaraz jartzeko aukerarik ematen, erakundeak berak jarri behar ditu euskaraz. Gainerako elementu guztiek euskaraz egon behar dute eta, bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direnean, euskarari lehentasuneko tratamendu formala eman behar zaio.

Hirugarren parametroa aldiz, kanpo harremanei buruzkoa da. Kasu honetan, produktuen eta zerbitzuen gida liburuak eta bermeak, erakundeak sortutakoak badira, euskaraz egon behar dute. Baina kanpotik jasotakoa badira, salbuespena egiten da, nahiz eta hornitzaileei euskaraz ere bidaltzeko eskaera egin behar zaien. Webgunea ere, euskaraz egon behar da eta, prentsa idatziko, irratiko eta telebistako iragarkiei dagokienez, euskaraz egon behar dute; euskaraz gain, beste hizkuntza batean egotekotan, komunikabidearen arabera hizkuntza batean edo bestean jartzea onartzen da. Azkenik, azpimarratzekoa da, bezeroarekiko harremanean erabiltzen den agiri edo elementu bakoitzean, euskararen presentziak eta tratamendu formalak (letra tamaina, lodiera, kokapena...) beste hizkuntza batek izan dezakeenaren adinakoa izan behar duela.

III. Ikasleen ekarpenak



7

Azkenik, barne harremani buruzko parametroa aztertzen da eta, bertan biltzen diren baldintzak betetzeko, entitateak elementu hauek behintzat, euskaraz eskaini behar ditu: lan hitzarmena, lan kontratuak, bazkidetzak, nominak (txantiloia eta erakundeak bete beharreko atala), barne araudia, barne oharrak (zirkularrak, jakinarazpenak, bilera deiak...), bileretako gai zerrendak, harrera plana, etab. Era berean, bezeroekiko harremanetan erabilitako aplikazio informatikoek, harremanak euskaraz izatea bermatu behar dute. Honetaz gain, barne harremanetan erabiltzen diren elementu guztiek euskaraz egon behar dute, funtzionamenduan eragiten duten hornitzaileek edota azpikontratutako ohiko zerbitzuek (aholkularitza, abokatua, garbiketara, garraio enpresa...) euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar dute eta EAEn kokaturiko Administrazioekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskara hutsean izan behar dira.

3. Entitate ziurtagiridunen esperientzia

1354 entitate ziurtagiridunetako bat Zarauzko *Mendizabal* denda da. Bai Euskarari “Zerbitzua Euskaraz” Ziurtagiria dauka 2007. urtetik eta, memento hartan dendaren arduradun zen Izaskun Mendizabalen hitzetan, bezeroek pozik hartu zuten ekimena, horrela erosketak euskaraz egin zezaketela ziurtasun osoz zekitelako. Mendizabal dendak “Zerbitzua Euskaraz” Ziurtagiria dauka, izan ere, dendako telefonoaren erantzungailua, kartelak, egutegia, albaran orriak, poltsak... euskaraz ditu. Era berean, salgai dituen produktu gehienaren izenak euskaraz ditu, nahiz eta hasieran itzulpenak egiteko laguntza eskatu behar izan zuen.

Beste adibide bat, Interneten komunikatzeko aholkularitza integrala eskaintzen duen Lotura kooperatiba da: “Euskararen Bidean” Ziurtagiria dauka duela bi urtetik eta, bertako kide den Idoia Iradiren arabera, oso garrantzitsua da zerbitzuak euskaraz ematea, lehenik, herri honen berezko hizkuntza delako eta, bestetik, Euskal Herrian euskaraz lan egiten duten enpresa asko daudelako. Diagnostiko horretatik abiatuta, Idoiak eta bere lankideek, Bai Euskarari Ziurtagiria beren merkatuan nabarmentzeko baliabide bikaina zela ikusi zuten eta, era berean, Lotura kooperatibak bezero dituen gainerako enpresekin euskaraz eta inongo konplexurik gabe harremanetan hasteko aitzakia paregabea zela sumatu zuten.

LAB sindikatua ere, 2005etik da ziurtagiriduna eta aurtan lortu du mailaz igotzea, “Zerbitzua Euskaraz” mailara igotzea. Era berean, 2015etik Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko Zuzendaritzaren parte da, Elkartek langileen ahotsa bertan egotea garrantzitsua dela uste duelako. Honekin batera, duela gutxira arte LAB sindikatuko Idazkari Nagusia izan den Ainhoa Etxaideren ustez, euskara normalizatzeko lan mundua euskalduntzea ezinbestekoa da. Izan ere, bere hitzetan alferrikakoa da belaunaldi berriei euskara irakasten eta bere egin dezaten lana egitea, lan munduan sartzen direnean ezin badute euskaraz lan egin. Horretarako baina, sindikatua bera euskalduntzea nahitaezko urratsa dela azpimarratzen du. Bukatzeko, LAB euskara bultzatzen duen eragilea den heinean, zerbitzuak euskaraz eskaintzeak duen garrantzia goraiatzen du.

IV. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak

1. Egitura eta funtzionamendua

2000. urtean Bai Euskarari Ziurtagiriaren sortzailea Kontseilua izan bazen ere, Ziurtagiriaren Elkarteak lan mundua euskalduntzeko estrategikoki lanean dihardu 2007tik; orduetik, Ziurtagiriaren Elkarteak da Ziurtagiriaren kudeaketa integralaz arduratzen dena.



Irabazi-asmorik gabeko elkartea da eta kide anitzeko bi organoren esku dago. Alde batetik, Bazkideen Batzar Orokorra dago eta Elkartea eratzen duten erakunde guztiek osatzen duten organo gorena da –entitate guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte-. Bestetik, [Zuzendaritzak](#), urteroko egitasmoa eta Batzar Orokorra hartutako erabakiak aurrera eramateko eginbeharra du. Zortzi kidek osatzen dute organo hau eta, horietatik zazpi, bazkideak dira.

Komeni da argitzea, [hiru bazkide multzo](#) bereizten direla: bazkide babesleak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide laguntzaileak. Babesleak Kontseilua osatzen duten kideak dira, erabiltzaileak berriz, Ziurtagiria duten entitateak eta, laguntzaileei dagokienez, esan daiteke Ziurtagiriaren sustapenean elkarlanean aritu nahi duten entitateak biltzen direla.

Hau esanda, egun Zuzendaritza osatzen duten kideak hauexek dira: bazkide babesleen artetik, Kontseiluko Lehendakaria, Kontseiluko Idazkari Nagusia, EMUN, Elhuyar, Artez, Iberba eta Ahizeren (azken lau hauek txandakatzen joaten dira, betiere, bi entitateen presentzia bermatuz); bazkide erabiltzaileen artetik, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa eta Oreka IT; bazkide laguntzaileetatik LAB sindikatua; eta azkenik, Elkarteko zuzendaria.

2. Helburuak eta esku artean dituen proiektu desberdinak

Ziurtagiriaren Elkarreak, euskarak alor berriak bete ditzala du helburu, hau da, arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea (Elkartearen Hausnarketa Estrategikoan adostu zen) eta, horretarako, alor sozioekonomikoko entitateen arteko elkarlana sustatzen du. Jakina denez, bere tresna nagusia Bai Euskarari Ziurtagiria da, prozesu parte-hartzaile, dinamiko eta planifikatu baten emaitza dena. Hala ere, Ziurtagiriaren Elkarreak urte hauetan zehar zenbait pauso eman ditu proiektua sendotzeko eta hobetzeko asmoz. Hala, Ziurtagiriaren gain, Elkarreak proiektu ezberdinak garatzen ditu, Ziurtagiriaren Elkartearen webgunean azaltzen direnak: Lazarraga Sariak eta Lanabes, Lansarean eta Enpresarean.

Lazarraga Sariaren bidez, Elkarreak, esparru sozioekonomikoan euskara txertatzeko eta hedatzeko lanak aurrera eramaten dituzten entitate zein pertsonak aitortu eta goraiatzeko ditu. Aipatzekoa da, sari hau jasotzeko hautagaiak, Trebiñun edo Arabako Lurralde Historikoan zerga-egoitza duten pertsona fisiko zein erakundeak baino ezin direla izan. Izan ere, sari honen helburua Arabako esparru sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzea da. Azpimarratzekoa da ere, 2016az geroztik Lanabes egitasmoaren barruan antolatzen dela Lazarraga Sariaren banaketa. Egitasmo honek Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea eta handitzea du helburu. Pixkanaka, euskara Arabako enpresen eguneroko kudeaketan barneratzen doa proiektu honetan adostu diren hiru lan-ildoren bitartez. Lan-ildo hauek, ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkundea ematea, Arabako sektore sozioekonomikoa euskararen erabileraz sentsibilizatzea eta era guztietako entitate eta pertsonak inplikatzeko dira.

Lan-sarean proiektua berriz, enpresa edo profesional euskaldunak ezagutzeko erreminta da. Esan bezala, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarreak martxan jarritako proiektua da eta bi funtzio nagusi ditu: batetik, enpresek hautaketa-prozesuak kudeatu eta eskaintzen dituzten lanpostuetarako hautagaiak aurkitu ditzakete eta, bestetik, lan bila ari diren pertsonen enpresen lan-eskaintzen berri izan eta horietan izena emateko aukera dute.

Azkenik, Enpresarean proiektuaren bitartez, Elkarreak euskara elementu komuntzat duten enpresa, elkarre zein profesionalen arteko elkarlana sustatzea du eta bi urtean behin antolatzen duen Enpresarean azoka, Enpresa Foroa hitzaldi-glosarioak eta Enpresarean.eus webgunea ditu ardatz.

III. Ikasleen ekarpenak



Azpimarratzekoa da, 2013an egindako Hausnarketa Estrategikoari esker, etorkizunera begira Elkartek bere egitasmoak indartzen eta euskararen normalizazioaren bidean urrats esanguratsuak egiten jarraitzeko asmo irmoa duela. Kontuan izan behar da, bere garaian onartutako “Ziurtagiriaren Elkartaren Estrategia, 2009-2012” planaren bidez Elkartaren misio, balio eta ikuspegia definitu zirela eta, Hausnarketa Estrategikoaren bitartez berriz, egoera zertan aldatu zen aztertu zela. Honekin batera, aurrera begira Ziurtagiriaren Elkartaren helburua eta lan ildoak zeintzuk izango ziren zehaztu zen.

V. Ziurtagiridunen datu-basea eta mapa

Gaur egun, [1354 entitate](#) dira Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dutenak eta, esan daiteke, aniztasuna dela familia handi honen ezaugarri nagusia, izan ere, sektoreka sailkatuz gero zerrenda ez da bat ere motza:

SEKTOREA	KOPURUA
Abeltzaintza	8
Administrazio publikoa	7
Aholkularitza, finantzak, aseguruak	76
Akademiak	119
Alderdi politikoak	82
Arrantza eta ehiza	3
Autoak eta autoentzako zerbitzuak	21
Dendak	205
Elkargo profesionalak	12
Irakaskuntza-elkartek	24
Merkataritza-elkartek	14
Enpresak	89
Etxerako ekipamenduak	20
Euskaltegiak	107
Euskara zerbitzuak	12
Formazioa	23
Gainazal handiak	23
Garraioak	14
Gizarte mugimenduak	44
Hedabideak	27
Hileta zerbitzuak	9
Ikastetxeak	37
Ikastolak	28

III. Ikasleen ekarpenak



Industria sustatzailea	13
Informatika, softwarea, multimedia	16
Kirola	77
Kultura	106
Nekazaritza	22
Osasungintza	53
Ostalaritza	86
Sindikatuak	10
Turismo zerbitzuak	30
Ur, gas eta argindarraren hornitzaileak	13
Zerbitzu profesionalak	88

Herrialdeen arabera sailkatuz gero, ikusi daiteke ziurtagiridun entitate gehienak Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian kokatzen direla. Araban, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan berriz, gutxiago daude.

HERRIALDEAK	KOPURUA
Gipuzkoa	496
Nafarroa	254
Bizkaia	245
Lapurdi	184
Araba	129
Nafarroa Behera	40
Zuberoa	4

VI. Ondorioak

Bai Euskarari Ziurtagiria bere sakontasunean ezagutu eta gero, pentsatzen dugu euskara normalizatzeko tresna oso baliagarria dela. Izan ere, euskaldunok euskaraz bizi nahi baldin badugu – zentzu hertsian-, ezinbestekoa da euskarak bizitzako esparru guztiak irabaztea, bere egitea. Horretarako, gaur egun euskaldunok erabilgarri ditugun baliabide boteretsuenetako bat da aztertu dugun zigilua.



Esan bezala, hizkuntza batean normaltasunez bizi ahal izateko espazioak euskalduntzea estrategikoa da, azken finean, pertsonok une oro baititugu harremanak elkarren artean. Beraz, harreman sare hori ardatz hartuta, azpimarratzekoa da alor sozioekonomikoak hartzen duen espazioa; lana bizitzako alderdi garrantzitsuenetako bat da, eragin handia dauka gure bizimoduan eta, era berean, produktu eta zerbitzuak kontsumitzen ditugu, hau da, enpresak eta ekonomia bera bizirik mantentzen ditugu. Hortaz, alor sozioekonomikoak gure hizkuntza jardueran ere eragin handia dauka eta, horregatik, euskarari lekua bertan egiteak berebiziko garrantzia duela deritzogu.

Halaber, Bai Euskarari Ziuertagiria puntu honetan kokatzen dugu: Ziuertagiriak entitateen barneko egitura guztian euskara lantzen laguntzen du eta, kanpo harremanei begira ere, eragin bera dauka; zeren eta, Ziuertagiriak hizkuntza gaitasuna erakusten duen heinean, euskaraz komunikatzeko gaitasuna duen entitate orori edozein ziuertagiridun entitaterekin euskaraz komunikatzeko aukera duela bermatzen zaio.

Era berean, Bai Euskarari Ziuertagiriak hizkuntza gaitasuna erakusten duen heinean, Ziuertagiriak hiru maila ezberdin izateak -“Euskararen bidean”, “Zerbitzua Euskaraz” eta “Zerbitzua eta Lana euskaraz”- entitateei euskararen alde egindako lan eta eraldaketaren aitortza motibagarria dela irizten dugu, euskararen alde lana egiteagatik jasotzen duten aitortza, alegia. Gainera, enpresa batek gizartearekiko konpromisoa eta gai sozialen inguruan ardura agertzen duenean, irudi hobea ematen du eta halaber, bezeroek euskararen alde egindako lana aintzat hartu eta eurekiko apustua egingo dutela uste dugu, honela, bezeroek ere euren aletxoa jarriko dutelarik euskara normalizatzeko bidean.

Beraz, zigiluaren abantailetan azaldu bezala, pentsatzen dugu egiaztagiri honek hiru bertute nagusi dituela: poliki-poliki Euskal Herriko alor sozioekonomikoa euskaldunduarazten duela, euskara lan hizkuntzat hartzea bultzatzen duela eta alor sozioekonomiko euskaldunaren sarea etengabe handitzen duela. Hau da, euskararen normalizazioa gero eta hurbilago ikusarazten digu. Jabetu gara ere, Bai Euskarari Ziuertagiriak zenbait oztopo dituela, ekonomikoak gehienbat. Izan ere, euskararen normalizazio prozesuaren garrantziaz guztiz kontzientziatuta ez dauden entitateentzat, kostu ekonomikoa aitzakia izan daitekeela iritzi dugu. Jakin badakigu Elkartea oztopo horren jabe dela (diru-laguntzak eskaintzeko hitzarmenak sinatzen dituelako...), baina Bikain Ziuertagiriarekin alderatuta, agian azken hau erakargarriagoa izan daitekeenaren susmoa piztu zaigu, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak emandako zigilu ofiziala delako, kanpora begira “prestigio handiagoa” izan dezakeelako.

Kontuak kontu, uste dugu euskaldunok Ziuertagiriaren Elkartearen zein entitate ziuertagiridunen aldeko apustua egin behar dugula. Izan ere, eragile hauek dira benetan euskaraz erabat bizitzearen (hots, arlo guztietan euskaraz aritu ahal izatearen) azken helburura iristeko bidea lausotzen digutenak.

VII. Bibliografia

Argia astekariaren bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=hcdWjHXuHU8>

Bai Euskarari Akordioa (68. orritik aurrera):

<https://www.jakin.eus/show/ac284b96f786bbd2969def2c9725c20b023f3689>

Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkartearen webgunea: <http://www.baieuskarari.eus/>

Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkartearen Youtubeko kontua:

<https://www.youtube.com/channel/UCpzW14emjRihYw55AC4HBMW>

III. Ikasleen ekarpenak



LAB sindikatuaren Youtubeko kontua:

<https://www.youtube.com/watch?v=PmJdigOZOdM&t=9s>

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren webgunea: <http://kontseilua.eus/>

GUTIERREZ, Roberto, “*Bai Euskarari Ziurtagiria. El Certificado Bai Euskarari?*”, Noves S.L. Soziolinguistika Aldizkaria, 2002.